Bestelako Xedapenak

KULTURA SAILA

1206

AGINDUA, 2009ko urtarrilaren 16koa, Kultura sailburuarena, Eako (Bizkaia) Eguzki Jaia Etxea, Kultura Ondasun gisa, Monumentu izendapenaz Euskal Kultura Ondarearen Zerrenda Orokorrean sartzeko dena.

Euskal Autonomia Erkidegoak, Konstituzioaren 148.1.16. eta Estatutuaren 10.19. artikuluen babesean, eskumen osoa bereganatu zuen Kultura Ondarearen gaiari dagokionez. Aipatutako eskumen horretan oinarrituz, Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legea onartu zen, kultura-interesa duen Euskal Autonomia Erkidegoko ondasunak deklaratzeko prozedurak arautzen dituena.

2007ko maiatzaren 18an, Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordearen Ebazpena eman zen. Ebazpen honen bidez, Eako (Bizkaia) Eguzki Jaia Etxea, aurkezten zuen balio kulturala eta indarrean dagoen legedia ikusirik, Euskal Kultura Ondarearen Zerrenda Nagusian sartzeko espedienteari hasiera eman zitzaion. Ebazpen hau 2007ko ekainaren 13ko 113. zenbakia duen EHAAn argitaratua izan zen.

Aipatutako espedientearen administrazio-tramitazioak espedientea jendaurrean jartzera eta interesdunei entzutera behartu zuen, aipatutako 7/1990 Legeko 17. eta 11.3. artikuluetan eta artikulu horiekin erlazionatutako beste xedapenetan ezarritakoarekin bat etorriz.

Informazioa jendaurrean jartzeko eta interesdunei entzuteko izapidea egin ondoren, Álvaro Uribarri González jaunak alegazio-idazkia aurkeztu zuen.

Hona zertan datzan Álvaro Uribarri González jaunaren alegazioa:

1.– Mugaketa ez da bidezkoa, etxea eta haren lursailetik harantzago doalako, eta horrek Euskal Kultura Ondarearen uztailaren 3ko 7/1990 Legearen 2. artikulua urratzen du, zeinak monumentu baten kategorizazioa soilik higiezin bat banaka hartuta kontsideratzen baitu. Halaber, ingurumena eta paisaia ustez babestu beharrak espedientearen eskumena eta irismena gainditzen ditu, arras, eta gainera, ez ditu ingurumen- eta paisaia-balioak jorratzen, 7/1990 Legearen 2 artikuluko 1. puntutik ondorioztatzen denez.

2.– Atalaia baserriak eta haren lursailak ez dute batere interesik kultura aldetik; Eguzki Jaia etxearen ondare-balioa alderdi morfologiko eta tipologikoetan datza. Hortaz, Atalaia baserria eta haren lursaila babes-eremu-

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE CULTURA

1206

ORDEN de 16 de enero de 2009, de la Consejera de Cultura, por la que se inscribe la villa Eguzki Jaia, sita en Ea (Bizkaia) como Bien Cultural, con la categoría de Monumento, en el Inventario General del Patrimonio Cultural Vasco.

La Comunidad Autónoma del País Vasco, al amparo del artículo 148.1.16 de la Constitución y a tenor del artículo 10.19 del Estatuto de Autonomía, asumió la competencia exclusiva en materia de Patrimonio Cultural, en cuyo ejercicio se aprueba la Ley 7/1990, de 3 de julio, del Patrimonio Cultural Vasco, que regula los procedimientos de declaración de los bienes de interés cultural de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

El Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes, a la vista del interés cultural de la villa Eguzki Jaia, sita en Ea (Bizkaia), fundamentado en su valor cultural, y a tenor de lo dispuesto por la normativa legal aplicable, resolvió incoar mediante Resolución de 18 de mayo de 2007, publicada en BOPV n.º 113, de 13 de junio, el expediente para su inclusión en el Inventario General de Patrimonio Cultural Vasco.

La tramitación administrativa del referido expediente implicó, de conformidad a lo previsto en los artículos 17 y 11.3 de la mencionada Ley 7/1990 y en las demás disposiciones concordantes, el sometimiento de dicho expediente al trámite de información pública, durante el cual, también, se concedió audiencia a los interesados.

Abierto el trámite de información pública y audiencia a los interesados, Álvaro Uribarri González presentó escrito de alegaciones.

Álvaro Uribarri González alega lo siguiente:

1.– Que la delimitación es improcedente porque va más allá de la villa y su finca, y esto contradice el artículo 2 de la Ley 7/1990, de 3 de julio, del Patrimonio Cultural Vasco, que limita la categorización de monumento a un bien inmueble individualmente considerado. Así mismo, que la pretendida necesidad de protección ambiental y paisajística excede claramente la competencia y la extensión del expediente, y que del punto 1 del artículo 2 de la Ley 7/1990 se desprende que no se ocupa de la protección de los valores ambientales y paisajísticos.

2.– Que la absoluta carencia de interés cultural del caserío Atalaya y del resto de la finca sobre la que se encuentra y el valor patrimonial de la villa Eguzki Jaia que se refiere a sus aspectos morfológico y tipológico y

an sartzeak ez du ezer aportatzen, eta berdin-berdin utz litezke kanpoan.

3.– Ez da guztiz egia jabetza bien arteko lurrean banaketa fisikorik ez dagoenik.

4.– Eragindako ondasunei buruzko ezin baztertuzko azterketa juridiko-urbanistikoa eta juridiko-erregistrala falta zaio txostenari. Modu erabat diskrezionalean eta ausazkoan erabaki da mugaketa, kultura aldetik baino gehiago topografia edo orografia aldetik esanguratsuak diren halako maila-kota batzuetan oinarrituta.

Eremuaren mugaketa aldatzea proposatzen du: Eguzki Jaia etxea bera baino ez hartzea, eta ez ingurumaria.

Alegazioen aurrean esan behar dugu ezen, lehenengo arrazoibideari dagokionez -alegia mugaketa ez dela bidezkoa, etxea eta haren lursailetik harantzago doalako dioen arrazoibideari dagokionez-, ez dugula uste horrek 7/1990 Legea urratzen duenik, monumentu bat babesteko behar den ingurunearen mugaketa 7/1990 Legeak berak jasotzen duen kontzeptua baita, eta ez du zertan bat etorri babestutako eraikinarekin berarekin edo haren lursailarekin. Izan ere, sarritan gertatzen da monumentu baten babes-eremuaren mugaketak jabetza edo lursail bat baino gehiago barne hartzea. Babes-eremua ez da oinarritzen denboran alda daitezkeen eta beste izaera bat duten lursail edo jabetzen banaketa soil batean, ez da haren arabera zedarritzen. Monumentuaren beharrezko babesak eta balioztatzeak, bestalde, haren ingurunearen ingurumen-balioa ere zaintzea eskatzen dute, monumentua taxuz ulertzeko eta antzemateko ezinbesteko elementua den aldetik. Helburua ez da halako paisaia jakin bat babestea, baizik eta monumentua zaintzea bere kultura-balioari datxekion ingurumarian txertatua.

Atalaia baserriaren eta haren lursailaren kultura aldetiko interes-gabeziari dagokionez, egia dela onartzea baino ez dugu. Baserriak ez du batere interesik kultura aldetik, baina nahiz eta babesaren jomuga ez den baserria bera, horrek ez du esan nahi ezin denik mugaketaren barruan sartu Eguzki Jaia etxearen ondoan egoteagatik. Atalaia baserriak ez dio inolako ekarpenik egiten, benetan, Eguzki Jaia etxearen babesari, baina babes-eremuaren barruan sartu ezean Eguzki Jaia etxearen babesa urritu egin liteke, alegia, kultura-ondasuna balioztatzearen kalterako izan litezkeen jarduketei bidea ireki dakieke.

Bestalde, jabetza bien arteko lurrean banaketa fisikorik ez dagoenik ez dela egia dioen arrazoibideari dagokionez, ikusi ahal izan dugu Eguzki Jaia eta Atalaia baserriaren artean lerro kasik antzemaezin bat baino ez dagoela, banaketatzat hartu ezin dena. Edozein modutan ere, ez da garrantzitsua, eta mugaketa gehiago funtsatzen da Eguzki Jaia etxearen aurreko asentamendu eta lursailean eta monumentu-izaerari zor zaion koherentzian.

la inclusión del caserío Atalaya y la finca nada aporta, ni restaría su no inclusión, a la protección.

3.– Que no es del todo cierto la inexistencia de una división física en el terreno entre ambas propiedades.

4.– Que el informe carece por completo de un análisis de la realidad jurídico urbanística y jurídico registral de los bienes afectados que no se pueden obviar, y que se impone de forma discrecional y totalmente aleatoria una delimitación coincidente con cotas de nivel que, por otra parte, tienen poco de interés cultural y más topográfico u orográfico.

Se solicita modificar la delimitación del ámbito, limitándose al propio edificio Eguzki Jaia en sí y no al entorno.

A estas alegaciones cabe responder que respecto a que la delimitación es improcedente porque va más allá de la villa y su finca, esto no contradice la Ley 7/1990, ya que la delimitación del entorno necesario para la protección de un Monumento es un concepto recogido en la misma Ley y no tiene por qué coincidir con el propio edificio protegido o su finca. De hecho, es muy habitual que una delimitación de un entorno de protección de un Monumento incluya distintas propiedades o fincas. El entorno de protección no se basa ni está en función de una simple división de parcelas o propiedades que pueden variar en el tiempo y que responden a otra naturaleza. Por otra parte, la necesaria y debida protección y puesta en valor del Monumento implica preservar el valor ambiental de su entorno por la repercusión que tiene en la comprensión y en la percepción del Monumento. No se pretende proteger un determinado paisaje, sino preservar el Monumento en un contexto adecuado a su valor cultural.

En cuanto a la absoluta carencia de interés cultural del caserío Atalaya y del resto de la finca, sólo se puede decir que es una afirmación cierta. El caserío no presenta ningún interés cultural y la protección no se refiere al mismo, lo cual no implica que no pueda incluirse dentro de la delimitación por su ubicación junto a la villa Eguzki Jaia. El caserío Atalaya efectivamente no aporta nada a la protección de la villa, pero su no inclusión sí puede restar protección a Eguzki Jaia al posibilitarse actuaciones en él mismo o en su finca que puedan ser discordantes con la puesta en valor del bien cultural. Por otra parte, a veces, en los entornos de protección se incluyen elementos que no tienen interés o incluso son discordantes.

Por otra parte, respecto a que no es del todo cierta la inexistencia de una división física en el terreno entre ambas propiedades, cabe señalar que se observa un hilo prácticamente imperceptible que no puede considerarse como una división. En cualquier caso, no es sustancial y la delimitación responde más al asentamiento y finca anterior de Eguzki Jaia y a su mayor coherencia con su voluntad monumental.

Txostenari eragindako ondasunei buruzko ezin baztertuzko azterketa juridiko-urbanistikoa eta juridiko-erregistrala falta zaiola dioen arrazoibideari dagokionez, esan behar da azterketa txiki bat egin zela, baina benetan garrantzitsua eta ezinbestekoa dena Eguzki Jaia etxearen kultura-interesa baloratzea eta aztertzea da. Mugaketa, bestalde, ez da ausazkoa -maila-kota jakin batekin bat dator, alegia, honako muga hauek dituen kotarekin: sarrerako ataka, sarbide ondoko etxola eta begiratoki zaharra- bai eta asentamenduarekin eta eraikinaren ingurunearekin.

Babes-eremuak eraikina bera baino ez hartzeak ukatu egingo luke babes-eremuaren beraren zentzua eta arrazoia, eta hori monumentua babesteko eta balioztatzeko helburuen aurka joango litzateke.

Hori guztia dela eta, aipaturiko Legearen 17. artikuluan oinarrituz, Euskal Kultura Ondarearen Zerbitzu Teknikoek egindako txostena aztertu ondoren, eta Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordearen proposamena aintzat hartuz, honako hau

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Eako (Bizkaia) Eguzki Jaia Etxea Kultura Ondasun gisa, Monumentu izendapenaz, Euskal Kultura Ondarearen Zerrenda Orokorrean sartzea.

Bigarrena.– Ondasunaren deskribapen formala egitea, agindu honen II. eranskinean agertzen den bezala eta I. eranskinean azaltzen den mugaketarekin bat etorriz.

Hirugarrena.– Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legearen 26. artikuluan aurreikusten diren ondorioetarako Jabego Erregistroari Agindu honen berri ematea.

Laugarrena.– Eako Udalari bere hirigintza-araudia ondasun horrentzat egokitu dezan eskatzea Euskal Kultura Ondarearen Legeak xedatutakoa betez.

Bosgarrena.– Espedienteko interesdunei, Eako Udalari, Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura eta Garraio eta Hirigintza Sailei eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailari Agindu hau jakinaraztea.

Seigarrena.– Ondasuna Euskal Kultura Ondarearen Zerrenda Orokorrean sartzen duen Agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Bizkaiko Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Inskribatzeko den Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunetik izango du ondorioak.

En cuanto a que el informe carece de análisis de la realidad jurídico urbanística y registral, hay que decir que se realizó un breve análisis, pero que lo que resulta fundamental y obligado es el valorar y analizar el interés cultural de la villa Eguzki Jaia. Por otra parte, la delimitación no es aleatoria sino coincidente con una cota de nivel que incluye en sus límites la valla-puerta de entrada, la caseta junto al camino de acceso y el antiguo mirador y que, a su vez, es acorde con el asentamiento y dominio del entorno del edificio.

Limitar la delimitación del entorno de protección al propio edificio, supone, en sí mismo negar la existencia del entorno de protección y es contrario a los objetivos de protección y puesta en valor del Monumento.

Es por todo lo que antecede y, a tenor de lo establecido por el artículo 17 de la mencionada Ley, visto el informe de los Servicios Técnicos del Centro de Patrimonio Cultural Vasco y a propuesta del Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes,

RESUELVO:

Primero.– Inscribir la villa Eguzki Jaia, sita en Ea (Bizkaia), como Bien Cultural, con la categoría de Monumento, en el Inventario General del Patrimonio Cultural Vasco.

Segundo.– Proceder a la descripción formal del mencionado Bien conforme a la delimitación que se indica en el anexo I y en los términos expresados en el anexo II de la presente Orden.

Tercero.– Comunicar la presente Orden al Registro de la Propiedad, a los efectos previstos en el artículo 26 de la Ley 7/1990, de 3 de julio, del Patrimonio Cultural Vasco.

Cuarto.– Instar al Ayuntamiento de Ea para que proceda a la protección de dicho inmueble contemplándolo en su instrumento de planeamiento urbanístico municipal.

Quinto.– Notificar la presente Orden a los interesados, así como al Ayuntamiento de Ea, a los Departamentos de Cultura y Transportes y Urbanismo de la Diputación Foral de Bizkaia y al Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio del Gobierno Vasco.

Sexto.– Publicar la presente Orden de inclusión del bien en el Inventario General del Patrimonio Cultural Vasco en el Boletín Oficial del País Vasco y en el Boletín Oficial de Bizkaia.

DISPOSICIONES FINALES

Primera.– La presente Orden de inscripción surtirá efectos a partir del día de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Bigarrena.– Administrazio-bidea amaitzen duen Agindu honen aurka, interesdunek aukerako berraztertzeko errekurtsoa jar diezaiokete Kultura sailburuari hilabeteko epean, edo bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzietarako salari bi hilabeteko epean, Agindu hau azkenez argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko urtarrilaren 16a.

Kultura sailburua,
MIREN AZKARATE VILLAR.

I. ERANSKINA

Mugaketa

a) Mugaketa-eremua.

Bi eremu mugatzen dira; alde batetik, eraikina bera, eta, bestetik, inguruan duena.

Horrenbestez, hauek dira mugaketa-eremuaren mugak: Iparralde, ekialde eta mendebaldean, higiezina inguratzen duen 140 metroko kotaren nibel-kurba. Kota-kurba horrek bere baitan hartzen ditu begiratoki-jesarlekua, ipar-mugaketaren ondoan, eta Eguzki Jaia ondoan dagoen eraikuntza, hego-ekialdeko eremuan. Hegoaldean, finkarako sarbidetik, ate-hesi batek eta sarrera ondoko antzinako etxola bertikalak adierazten dutenak, 140 metroko kotarekin bat egin arte.

b) Mugaketaren arrazoiak.

Proposatu dugun mugaketa proposatzeak badu arrazoirik; eraikinaren ingurumen-balioak, balio estetikoak eta ikusizkoak zaintzeko beharra, landa-eremuan eta lorategiz inguratua, koherentea eraikuntzarekin; eta, bestalde, higiezinaren inguruan dauden elementuak zaintzeko beharra, ingurumen-balioari eusteko oso baliagarriak baitira. Mugaketak, halaber, badu beste arrazoi bat ere: higiezina mendi-muino baten gainean dagoenez, ingurua gailentzen duela, egoera horri eustea. Beharrezkotzat jotzen dugun mugaketa, ondasuna behar bezala babesteko eta balioa emateko, kurba topografikoarekin bat egiten duen lerro naturala da, eta hobeto egokitzen zaio eraikinak berak duen kokalekuari, gaur egungo jabego-mugaketari baino.

Segunda.– Contra la presente Orden que agota la vía administrativa, los interesados podrán interponer, en su caso, previamente recurso potestativo de reposición ante la Consejera de Cultura en el plazo de un mes, o bien, directamente, recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco dentro del plazo de dos meses, contados a partir del día siguiente al de su última publicación.

En Vitoria-Gasteiz, a 16 de enero de 2009.

La Consejera de Cultura,
MIREN AZKARATE VILLAR.

ANEXO I

Delimitación


a) Ámbito de la delimitación.

La delimitación incluye por un lado, el propio edificio en sí, y por otro el entorno que lo rodea.

Así, el área de la delimitación queda definida por los siguientes límites: al norte, este y oeste por la curva de nivel de la cota 140 metros que rodea el inmueble. Esta curva de cota incluye en su interior el mirador-asiento junto al límite norte y el edificio próximo a Eguzki Jaia en el área sureste. Al sur por el acceso a la finca, marcado por la puerta-valla y la antigua caseta vertical junto a la entrada, hasta su encuentro con la cota 140.

b) Justificación de la delimitación.

La delimitación propuesta viene justificada por la necesidad de preservar los valores ambientales, estéticos y visuales del edificio, en un entorno rural y ajardinado coherente con su propia realización y en preservar los elementos que rodean al inmueble y contribuyen a mantener su valor ambiental. La delimitación así mismo se justifica en mantener la posición de dominio del inmueble sobre la colina en la que se asienta. La delimitación que resulta necesaria para la debida protección y puesta en valor del bien es una línea natural coincidente con la curva topográfica, que se ajusta mejor al asentamiento propio del edificio que a los límites actuales de la propiedad.


MAR CANTABRICO
25
50
82.30
75
100
125
140
Eguzki
Jaia
150
6.23
125
100
75
50
153.33
150
ESKALA / ESCALA
40 0 40 80 Meters
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Kultura Ondarearen Zuzendaritza
Kultura Ondarearen Zentroa
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Dirección de Patrimonio Cultural
Centro de Patrimonio Cultural
Planoa / Plano:
Eguzki jaia edo Apikale etxearen mugaketa.
Delimitación de la villa Eguzki Jaia o Apikale.
Lurraldea / Territorio:
BIZKAIA
Udalerria / Municipio:
EA
Data / Fecha: 21/02/
Eskala / Escala: 1:3

II. ERANSKINA

Deskripzioa

Eraikina Ea udalerriko Urtza auzoan dago. Higiezina Ea udalerriaren muturrean dago, gune naturalak dituen landa-eremuan, Bizkaiko golkoaren ondoan. Etxea ia erabat laua den lursailaren erdi samarrean kokatuta dago, goragune batean eta lorategi batek inguratzen duela. Hegoaldera ematen duen fatxadan, magnolia bat, hagin bat, bi gereziondo eta limoiondoak daude. Lursailak behera egiten du ekialderantz, eta handik itsasoa ikusten da inolako trabarik gabe; eta iparralderantz eta mendebalderantz lurzorua ez da hain berdina. Lorategiaren iparraldeko aldean, fabrika-behatoki bat dago, erdi eliptiko formako jesarlekua. Etxerako sarbidean, hegoaldean, egurrezko itxitura bat dago, finkarako sarreraatea dena, eta etxola bertikal berezi bat ere bai, triangelu formako apaingarriak dituena. Estiloari dagokionez, bai ate-hesia, bai etxola bat datoz eraikin nagusiaren diseinuarekin. Higiezin bat dago etxearen jatorrizko lursailaren hegoaldeko eremuan, baina lurzoruan ez dago zatiketa fisikorik adierazten duen markarik.

Eguzki Jaiak erdisotoa, bi altuera eta azpiestalkia ditu. Oinplano irregularrekoa da, eta estalkiari dagokionez, oso inklinatuta dauden eta teila lauak dituzten faldoi ugariz estalita dago; forma bertikalak nagusitzen dira, gorputz askokoak eta gainaldean pinoiak dituztela. Eraikinaren bereizgarritzat hartzen da goiko zati guztiari eman dioten tratamendua, eta, batez ere, pinoiak.

Sarbideko hegoaldeko fatxada simetrikoki banatuta dago, eta hiru gorputzek osatzen dute. Alboetako gorputzek, goiko aldeetan, pinoi zabalak dituzte, leiho bertikal batek txapitulatuta; erdiko gorputzaren gainaldean, berriz, sarrera-arkupe txiki bat. Gorputzek baoardatz bertikal bana dute. Sarrerako arkupea fatxadaren erdian dago, eta horma lerromakur batek sarrerako atea zehazten du. Arkupeak azulejoak eta burdina-hesiak dituzten baoak ditu. Ekialdeko fatxada asimetrikoa da eta hiru gorputz desberdinek osatzen dute. Erdikoa, beste bien aldean, aurreratuago dago, eta goiko aldean aurreko pinoien antzeko bat du. Eskuin aldeko gorputzaren gainaldean, txapitula gisa jarritako beste pinoi bat dago. Fatxada horrek bao gehiago ditu, ordenan jarrita, eta solairu nagusiaren altueran terraza handi bat du, erdisotoaren estalkitzat egiten duena; arku beheratu baten bidez sartzen da bertara. Iparraldeko fatxadan, ipar-ekialdeko izkina nabarmendu egiten da; bi zati ditu eta hiru pinoi; horietatik erdikoa txapitula edo ganbara txiki bat da. Jatorrizko terraza luzatu egin dute, eranskin bat jarrita. Mendebaldeko fatxada da sinpleena; simetrikoa da eta hiru gorputz ditu; balkoirik ez duen fatxada bakarra da. Erdiko gorputza fatxada baino aurreratuago dago, eta goiko aldean leihorik gabeko pinoi bat du; komunak hor daudela nabarmen geratzen da eta leiho oso finak ditu alboetan. Fatxadetan bao bertikalak daude, kolore gorriko egurrezko kontraleiho veneziarrak dituztela, eta paramentu hondoratuak ere bai, bao itxura emateko. Hormigoizko balkoiak daude, jatorrizko diseinuak ez

ANEXO II

Descripción

El edificio se ubica en el barrio Urtza del municipio de Ea. El inmueble se sitúa en el morro de Ea, en un entorno rural de espacios naturales junto al mar Cantábrico. La vivienda ocupa una posición relativamente central dentro de una parcela predominantemente llana, situándose en una zona alta y rodeándose de un jardín. En su cara sur existe un magnolio, un tejo, dos cerezos y limoneros. La parcela desciende hacia el este donde se divisa el mar sin tamiz alguno y hacia el norte y el oeste con mayores desniveles. En la cara norte del jardín existe un mirador de fábrica que forma un asiento semielíptico. En el acceso a la villa, en el sur, hay un cierre de madera que es la puerta de acceso a la finca y una singular caseta vertical con ornamentos triangulares. Tanto la puerta-valla como la caseta responden ambientalmente al diseño del edificio principal. Hay un inmueble en el área sur de la parcela origen de la villa pero no existen divisiones físicas en el terreno.

Eguzki Jaia consta de semisótano, dos alturas y bajocubierta. Se caracteriza por su planta irregular, cubierta de múltiples faldones de fuerte pendiente con teja plana y, por el dominio de las formas verticales con numerosos cuerpos coronados por piñones. Es muy característico del edificio el tratamiento conjunto de toda su parte superior y concretamente de los piñones.

La fachada sur de acceso muestra una distribución simétrica con tres cuerpos. Los laterales están coronados por amplios piñones abuhardillados con una ventana vertical y en el cuerpo central se aloja un pequeño porche de entrada. Cada cuerpo alberga un eje vertical de vanos. El pórtico de acceso se sitúa centrado en la fachada y un murete curvilíneo marca la puerta de entrada. El pórtico tiene azulejos y vanos con herrería. La fachada este presenta asimetría y se compone de tres cuerpos diferentes. El central avanza respecto a los demás y está coronado por un piñón similar a los anteriores. Sobre el cuerpo lateral derecho existe otro piñón a modo de buhardilla. Esta fachada cuenta con mayor número de vanos, siempre ordenados, y una gran terraza a la altura de la planta principal, que sirve de cubierta del semisótano al que se accede a través de un arco rebajado. En la fachada norte se acentúa el ángulo noreste, hay dos tramos y tres piñones, siendo el piñón central una pequeña buhardilla. La terraza continúa con un añadido al original. La fachada oeste es la más austera, es simétrica, consta de tres cuerpos ciegos y es la única que no presenta balcones. El cuerpo central sobresale respecto a la fachada, es coronado por un piñón sin ventana, delata la ubicación de los baños y tiene finas ventanas en sus laterales. Las fachadas presentan vanos verticales con contraventanas venecianas de madera en color rojo y paramentos con rehundidos a modo de vanos ficticios. Existen balcones de hormigón ajenos al diseño del inmueble. La base del edificio, el semisótano, es un zócalo

zituenak. Eraikinaren oinarria, erdisotoa, goiko moldura duen zokalo bat da, lau banda horizontal hondoratutako junturekin eta behe-oinarri laua du.

Eraikinaren goiko zatiari hasiera emateko troxa horizontal bat du, eraikina osorik inguratzen du, erlaitza mugatzen duela eta triangelu-formako pinoien oinarri dela. Troxak, erdian, irudi geometrikoak ditu bata bestearen ondoan, kuxin-modura errepikatzen direla; angeluak ebakita ditu eta zirkuluerdiekin apainduta. Beheko aldea banda laua da eta goiko aldean moldurak ditu, angeluzuzenak, eta fatxadan barrena banatzen dira. Eraikinaren angeluak nabarmendu egiten dira, ez dira berdin landu, eta erliebeari dagokionez -troxatik kanpo ere bai, beheko aldean-, zirkulu zentrukide-multzo bat, oin karratu baten gainean. Pinoien horma-atalak estaltzeko, erliebezko irudi geometrikoak erabili dira, bata bestearen atzean modu erregularrean jarrita, eta kokalekuaren arabera tamaina desberdina dutela. Beheko aldean, erliebe bertikalak ditu elkarren ondoan, izkinak ebakita eta biribilduta dituzten forma angeluzuzenak dira; ondoren, erliebe txikiagoak ditu, karratuak errepikatzen direla, bi zirkulu zentrokide dituen oktogono batekin. Azkenik, gorri koloreko marra baten ondoren, estalkiaren hegalaren gorputza ageri da: gapirioak ditu besoak bailira, eta egurrezko oholen bidez lotuta daude.

Eraikinaren barruko aldeari dagokionez, egur landuko egitura-motakoa da eta karga-hormak harlangaitzezkoak ditu. Banaketa, berriz, horma-artetan bana daiteke, eskematikoki; mendebaldeko horma-arteak solairu guztietako komunak eta beheko solairuan dagoen sukaldea ditu; ekialdeko horma-arteak gelak eta eraikinaren zona garrantzitsuenak -egongelak eta kapera-; eta erdiko horma-arteak eskailera eta logelak. Lehenengo altuera solairu garrantzitsuena da, egongelak dituena; goiko solairuan, berriz, logelak daude. Estalkiazpian kapera bat dago, nerbio faltsuekin apainduta, eta aitorlekutzat erabiltzeko ate bat dago. Erdisotoko solairuan zenbait zerbitzu-gela daude, eta oraindik ere sukalderako sarbide zuzena du, eskailera txiki bat. Bestalde, etxeko egurrezko eskailera nagusia sarrerako aterpearen ondoren, tarte zuzen batean hasten da; eskaileraren albo bat egurrarekin itxita dago, eta beste aldea libre geratzen da. Barandaren azpiko aldeak forma kubikoa du, eta eskailerari hasiera ematen dion pilonoa lurrari lotuta dado, lehen eskailera-maila kanpoan uzten duela. Eskaileraren itxitura panelekin apainduta dago, paralelo jarrita, eta beste modu batera bada ere, eskaileraren arrapalaren beheko aldeko igeltsuan ere nabari daiteke. Barrualdeko egur-lanak hutsune karratu eta forma geometrikokoak dira, ingurua goxatzen dutela. Baoen leihozangoak egurrezkoak dira, leihoen barruko aldeari lekua egiteko. Burdina-lana ere interesgarria da, irudi geometrikoak eta forma kurbatuak ikus daitezke etxe guztian. Hau da, barrualdea eta eraikin-mota bera bat datoz.

con una moldura superior, cuatro bandas horizontales con juntas rehundidas y una base lisa inferior.

La parte superior del inmueble se inicia con una faja horizontal que recorre todo el edificio marcando la cornisa y sirviendo de base de los piñones triangulares. La faja, en su centro, está formada por una sucesión de figuras geométricas que se repiten a modo de almohadillados, con ángulos recortados y decoración con semicírculos. En su parte inferior es una banda lisa y en su parte superior consta de molduras en ángulo recto que avanzan sobre el plano de fachada. Los ángulos del edificio se acentúan con un tratamiento diferencial y un relieve, incluyendo fuera de la faja, en su borde inferior, un volumen de círculos concéntricos sobre un cuadrado de base. Los paños de los piñones son cubiertos totalmente por una sucesión regular de formas geométricas en relieve de un tamaño variable en función de su posición. En su parte inferior se dispone una sucesión de relieves verticales, rectángulos con los extremos recortados y curvos, para posteriormente dar paso a relieves de menor tamaño que básicamente son una repetición de un cuadrado maclado con un octógono que aloja dos círculos concéntricos. Por último y tras una franja roja surge el cuerpo del alero de la cubierta, con cabios a modo de jabalcones unidos por un entablado de madera.

El interior del inmueble conserva la tipología estructural de forjados de madera y muros de carga de mampostería. La distribución interior esquemáticamente se puede dividir en una crujía oeste que alberga el núcleo de baños en diferentes plantas y una cocina en la planta baja, una crujía este que alberga habitaciones y las zonas nobles o servidas del edificio con los salones y la capilla y, una crujía central que alberga la escalera y habitaciones. La primera altura es la planta noble con los salones, mientras la planta superior alberga habitaciones. En la bajocubierta hay una capilla con decoración de falsos nervios y una puerta que sirve de confesionario. La planta semisótano aloja diferentes servicios y conserva un acceso directo a la cocina mediante una escalera auxiliar. Por otra parte, la escalera de madera de la casa se inicia en un tramo recto tras el porche de acceso, está cerrada lateralmente por un empanelado de madera quedando el otro lateral en vuelo. El barandado tiene un tratamiento cúbico en su parte inferior y el pilono de arranque se fija al suelo sin invadir el primer escalón. El empanelado se decora mediante líneas rectas paralelas que también se aprecian, en menor medida, en la escayola de la parte inferior de la rampa de la escalera. Las carpinterías de madera interior presentan huecos cuadrados y formas geométricas y mantienen un interés ambiental. Las jambas de vanos tienen un tratamiento en madera para albergar las contratapas interiores de las ventanas. Se observa de manera generalizada interesantes trabajos de herrería con motivos geométricos y formas curvas. El interior presenta un tratamiento muy coherente e integro con el propio tipo de edificio.